gainontzeko arloetan aldatzen ari den heinean, gero eta desberdinagoa, anitzagoa eta laikoagoa delako. Euren iritziz, erlijio-egintza bat erlijio-egintza bat da, eta horren aurka ezin da esan tradizioak, historia, etab. argudiatu. Izan ere, denborak aurrera egin ahala, gauzak aldatzen direlako eta demokraziak aldatu zuelako egintza horien alde erlijiosoa. Are gehiago, demokraziak, trantsizioak edo borboitarren monarkiak Konstituzio bat ekarri zuen, non 16. artikuluak Estatua akonfesionala dela adierazten baitu. Honek esan nahi du Estatua edozein erlijiotik at dagoela, arlo hau pertsonen eremu pribatukoa dela uste delako, eta Estatuak gauza publikoak kudeatzen dituelako. Eurek, laikotasunaren aldeko kolektibo gisa, administrazio laiko baten alde daude, pertsonen arteko berdintasuna bermatuko duen modu bakarra dela uste dutelako; gainera, uste dute denek bat etorriko direla pertsonen arteko berdintasun hori dela demokraziaren printzipioetariko bat. Bestalde, kontuan hartu behar da berdintasuna, legeetan jasota baldin badago ere, praktikan ez dela ematen gizartean, izan ere, botere ekonomikoak, historiak, tradizioek, askotan, aurkako zentzuan bultzatzen baitute. Horregatik pentsatzen dute administrazioak oso paper garrantzitsua izan behar duela, etengabe neurriak hartuta, berdintasun hori kalean ere eman dadin. Era berean, uste dute administrazio laiko batek bermatzen duela giza-eskubideak bete daitezen, erlijioen arteko diferentziek, askotan, giza-eskubideak ez betetzera eramaten duelako. Hori guztiagatik, uste dute administrazioak, erakundeek, ez dutela erakunde gisa esku hartu behar erakunde gisa edo erakundeen ordezkari modura erlijio-

como están, mientras alrededor la sociedad está cambiando, llegando a ser cada vez más diversa, mas plural y más laica. Entienden que un acto religioso es un acto religioso, y que contra esto no se pueden argumentar que si las tradiciones, la historia, etc., o que el paso del tiempo va cambiando las cosas y que la democracia cambió ese aspecto religioso de los actos. Piensan que no, y es más, la democracia, la transición o la restauración de la monarquía Borbónica, lo que trajo fue una Constitución que en su artículo 16 plantea que el Estado es aconfesional. Esto quiere decir que el Estado está al margen de cualquier religión, porque se entiende que éstas forman parte del ámbito privado de las personas, y el Estado gestiona los aspectos públicos. Como Colectivo por la laicidad están por una administración laica, porque piensan que es la única forma de garantizar la igualdad entre las personas, piensa que todos y todas estarán de acuerdo en que esta igualdad entre las personas es uno de los principios de la democracia. Por otra parte, hay que tener en cuenta que la igualdad, aunque esté reflejada en las leyes, en la práctica no se da en la sociedad, los poderes económicos, la historia, las tradiciones, empujan muchas veces en sentido contrario. Por esto piensan que es la administración quien debe tener un papel muy importante, llevando medidas continuamente para que esa igualdad se dé en la calle. También creen que una administración laica garantiza que se cumplan los derechos humanos, la diferencia de las religiones ha hecho en muchos casos que los derechos humanos no se cumplan, sobre todo en el caso de las mujeres y de las personas homosexuales. Por todo ello entienden que la administración,

aferetan. Zentzu horretan poztu egiten dira eta sostengatzen dituzte BILDUk eta Errenteriako Ezkerrak aurkezturiko mozioan planteatzen dituzten hiru puntuekin, alegia, erlijio-egintzetan ez parte hartzeko, hala nola administrazio laiko batek printzipio hauek oso osorik ekimenak bultzatu errespetatu behar dituela eta bultzatu behar dituela sinesmenik ez dutenek ere egintza horietan euren espazioa izan dezaten. Era berean, pixka bat aurrerago joatea gustatuko litzaieke Elizak une honetan dituen zerga-onuraren inguruan, eta horregatik zerga-pribilegioen aurkako jarrerak hartuko beharko liratekeela uste dute. Ildo horri jarraiki, animatu lukete eztabaida hori planteatzeko, lehenengo Elizak dituen ondasunen zentsu bat egin dadin gero Elizak, herritar orok bezala, higiezinei dagokien OHZ ordain dezan.

las instituciones, no deben participar como tales instituciones o en representación de la institución en los aspectos religiosos. En ese sentido apoyan y se congratulan de la moción presentada por BILDU y Errenteriako Ezkerra en los tres puntos que plantea, tanto en la no participación en los actos religiosos, como en que sea una administración laica que respete estos principios en todos sus aspectos y en apoyar todas aquellas iniciativas y fomentar el que los no creyentes también tengan un espacio para poder realizar sus actos. También quisieran que se fuera un poco más adelante, creen que es necesario posicionarse contra los privilegios fiscales que en este momento tiene la Iglesia. En ese sentido, animarían a que se planteara el debate, a que se hiciera primeramente un censo de las propiedades que tiene la Iglesia, para llegar posteriormente a debatir que la Iglesia, como toda la ciudadanía, pague el IBI correspondiente a sus inmuebles.

* Errenteriako Kaputxinoak Elizako erretoreak esan du bera kristaua, apaiza, dela. Hala, demokrazian bizi nahi dute eta, bere aburuz, demokrazia eta laikotasuna bat datoz. Haren esanetan, laikotasuna gai erlijiosoaren sinesmena bakoitzaren kontua da, eta hortaz, Udalak ez du hor sartu behar. Eta ez badu sartu behar, hitzak eta ekintzak uztartu egin behar dira. Ezin da gauza bat esan eta kontrakoa egin. Bere iritziz, behar-beharrezkoak dira ongietorriak eta agurrak egiteko lekuak, eta hiritar guztiek duintasunean egiteko eskubidea dute. Bestalde, prozesioak ez ditu herriak egiten, herriaren zati batek baizik. Haren aburuz, hori ekintza erlijioso bat da, eta laikotasuna errespetatuko bada, Udalak ezin du prozesio batera joan, eta pertsona gisa joaten bada, bere burua ordezkatuz joango da, ez

* Interviene en euskera el párroco de la Iglesia de los Capuchinos de Errenteria manifestando que él es cristiano, es cura. Así, desean vivir en democracia y, a su juicio, la democracia y la laicidad coinciden. Considera que la laicidad es un tema de cada creencia religiosa, y que por ello el Ayuntamiento no debe entrar ahí. Y si no tiene que entrar, las palabras y los actos deben confluirse, puesto que no se puede decir una cosa y realizar la contraria. Piensa que son del todo necesarios lugares para los actos de bienvenidas y despedidas, porque todos los ciudadanos tienen derecho a hacerlo con dignidad. Por otra parte, cree que las procesiones no las hace el pueblo, sino una parte del mismo. A su juicio es un acto religioso, y si se ha de respetar la laicidad, el Ayuntamiento como tal no puede asistir a la

zinegotzi modura, gaineratu du. Eurek, zinegotzi gisa joateko leku eta jarleku berezi bat izan dezan eskatzen dute, ez prozesioan parte hartzeko. Eta prozesioan parte hartuko dute, gehiago edo gutxiago, kristauak diren heinean. Hori gaur edo bihar, baina igual etzi ez, nabarmendu du. Izan ere, Gipuzkoan prozesio gehienak kendu baitira nahiz eta tradizioa izan. Hortaz, berak uste du hor Udalak ez duela sartu behar. Eta ez du uste horregatik kristau-elkarteak Udalari galdetuko dionik ea prozesioa mantendu behar duen ala ez. Bere ustez, kristauek ere laikotasun horretan bizi nahi dute, kristautasuna bere lekura etorriko baldin bada. Eta utziko badio instituzio hierarkiko kaltegarria, tamaina batean, izateari, ba, izango da laikotasun batean bizitzen ohitzen badira. Hortaz, berak eskertzen ditu Alkatea, Bildu eta Ezker Anitza, mozio hori kristauentzako oso mesedegarria delako, eta eskatzen die Udalean behin-betiko laikotasunean bizitzen hasteko. Gainera, uste du egia dela han esan dena, alegia, laikotasuna, etab. esaten dela, baina gero istiluak sortzeko beldurrez edo, ez dituztela aurrera pausoak ematen. Berak ez daki zer geratuko den, baina, eurei, kristauei, komeni zaiela laikotasuna, gaineratu du.

procesion. Y si alguien va, cree que irá como persona, no como concejal. Ellos solicitan un lugar y una silla para que pueda ir como concejal, no para que asista a la procesion. Y cree que en la procesión participarán, más o menos, en la medida en que son cristianos. Eso ocurrirá hoy o mañana, pero tal vez pasado mañana no, porque en Gipuzkoa la mayoría de las procesiones se han anulado, aún siendo una tradición. Por todo ello considera que ahí el Ayuntamiento no debe entrar. Y no cree que por ello las asociaciones cristianas vayan a preguntarle si va mantener la procesion o no. A su juicio también los cristianos desean vivir en dicha laicidad, si desean que el cristianismo ocupe su lugar. Y si desean que deje de ser, en cierta medida, una institucion jerarquizada, será si se acostumbran a vivir en cierta laicidad. Por ello agradece al Alcalde, a Bildu y a Ezker Anitza por considerar dicha moción muy beneficiosa para el cristianismo, y les solicita que empiecen a vivir en el Ayuntamiento en una laicidad definitivamente. Agrega que cree que es verdad lo que allí se expresa en cuanto a la laicidad, pero que luego por miedo a los altercados, etc., no se dan los pasos necesarios para llevarlo adelante. Él desconoce qué es lo que va ocurrir, pero a nosotros los cristianos, nos conviene, añade.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du Herzog jaunak (PP) noiznahi harritzen duela, eta deigarria egiten zaio besteena aukera-ideologikotzat hartzea eta eurena, berriz, non egingo den ez dakien zozketa bat bailitzan hartzea. Garbi dago PPrena ere aukera ideologiko bat dela, eta arazoa da aukera hori baztertzailea dela eta Errenteriako Ezkerrak defendatzen ari den aukera ideologikoa, aldiz, barneratzekoa da. Horrela, lehenengo aldiz

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que el Sr. Herzog (PP) no deja de sorprenderle y le llama la atención que hable de lo de los demás como una opción ideológica, como si lo de ellos fuera un boleto o un sorteo que se va a celebrar no se sabe donde. Evidentemente la del PP también es una opción ideológica, el problema es que esa opción tiene la lógica de la exclusión, y sin embargo la opción ideológica que Errenteriako

mintzatu denean esan du bere Taldeak defendatzen duen laikotasun-kontzeptuan erakundeek irabazten dutela, erlijio-sinesmenek irabazten dutela, funtsean pertsonek eta tradizioek irabazten dutela. Gaineratu duenez, han inor ez da ari planteatzen tradizio bat kendu behar denik, horrek bere horretan iraungo du, justu horretxegatik, tradizio bat delako, eta ez ekitaldi horretan Udalbatza horretako 21 zinegotziek parte hartuko dutelako. Bere iritziz 2012ko jaietako programan ondoko testua argitaratzeak: “Parrokiako Batzarraren prozesioa, Udalbatzak lagunduta, madalena Deunaren Basilikara joango dira, Udal Txistulari Banda, Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Musika Banda eta Ereintza Dantza Taldea lagun dituztela. Santuaren irudia herriko Elizaraino eramango dute. Ondoren meza nagusia Herriko parrokian izango da bertako abesbatzarekin. Maria Donea Zeruratzearen parrokiak antolatua”. Bere iritziz, testu horrek ez du batzen, baztertu baizik. Orduan alderdi Sozialistako lagunei galdetuko lieke ea nola bereizi beharko litzatekeen gune publikoa eta gune erlijiosoa. Uztailaren 22an Patxi Lopez Errenteriara bisitan etorriko balitz, zer egingo zukeen, joango al litzatekeen prozesiora, mezara, Lehendakari gisa joango litzake edo, joatekotan, bere buruaren izenean joango al litzateke, galdetu du. Hortaz ari dira hizketan hain zuzen ere, ez dira iragana epaitzeaz ari, etorkizunari ekarpen bat egiteaz baizik.

* Herzog jaunak (PP) uste du sekula ez dela izan prozesio batean pertsonen presentzia baztertzailea, joan nahi duen edonor onartzen duelako eta sekula inor ez duelako baztertuko. Joan zintezke edo ez, inork ez dizu esango joateko, eta ez bazara joaten, inork ez dizu

Ezkerra está defendiendo tiene la lógica de la inclusión. En la primera intervención ha dicho que con el concepto de laicidad que su Grupo defiende, ganan las instituciones, ganan las creencias religiosas, ganan las personas fundamentalmente e incluso ganan las tradiciones. Aquí nadie está planteando eliminar una tradición, ésta se mantendrá por eso, porque es una tradición y no porque 21 corporativos y corporativas de esta institución participen en dicho acto. Piensa que en el año 2012, publicar en un programa de fiestas el siguiente texto: "La Corporación Municipal y el Cabildo Parroquial, acompañados por la Banda Municipal de Txistularis, la Banda de Música de la Asociación de Cultura Musical de Errenteria y Ereintza Dantza Taldea, se dirigirán a la Basílica de Santa María Magdalena, de la cual partirá la Tradicional Procesión (en mayúsculas), que conducirá la imagen de la Santa a la Iglesia Parroquial, seguida de una solemne Misa Mayor (en mayúsculas)", este texto no incluye, este texto excluye. A los compañeros y compañeras del Partido Socialista les pregunta cómo hacer para separar el espacio público y el espacio religioso. Si el día 22 de julio Patxi López visitara Errenteria, ¿que haría?, ¿iría a la procesión?, ¿iría a la misa?, ¿iría en condición de Lehendakari, o iría en todo caso a título personal?. De eso están hablando, no hablan de valorar el pasado, no están haciendo un juicio al pasado, están haciendo y pidiendo una aportación hacia el futuro.

* El Sr. Herzog (PP) señala que de ninguna manera la presencia de personas en una procesión puede ser excluyente, es una procesión que admite a cualquiera que quiera presentarse y no va a excluir a nadie nunca. Puedes ir o no, y si vas, nadie te dice que vayas,

esaten ez joateko, nabarmendu du. Haren esanetan badaude tradizio batean fedea duten pertsonak, eta horiek arrazoizkoa eta tradizionala ikusten dute erakunde publikoak bertan ordezkatuta egotea. Berak ez daki zein den mozio honen helburua, zinegotziek eurek nahi duten eran joan daitezen ez bada planteatu behar, izan ere, bat hara titulu guztiekin joaten delako. Bera ez da joaten prozesiora zinegotzia, albaitaria edo beste edozein kolektibokoa delako, toki guztietara den-denekin joaten delako. Bestela ezinezkoa da, ezin duzulako eskizofrenikoki nortasuna kendu eta orain zinegotzi naiz eta orain ez, esan. Usaian joan izan direla, eta orain batzuek joan nahi dutela eta besteak ez, hori ohitura dela uste du. Zer lortu nahi da mozio honekin? Ez al da, besterik gabe, tradizio herrikoi bat kendu nahi? Berak ez du besterik ikusten, eta baldin badu, esplika dezatela Diez Gabilondo eta Ferradas jaunek, gaineratu du.

y si no vas, nadie te dice que no vayas. Hay unas personas que tienen fe en una tradición y que consideran razonable y tradicional que los estamentos públicos estén allí representados. No sabe el objeto de esta moción si no se va a plantear que no vayan a ir concejales a título de lo que quieran,..., porque uno va allí con todos sus títulos. Personalmente no va a la procesión porque sea concejal, veterinario o de cualquier otro colectivo, va con todo a todos los lados, no puede ser otra cosa, no te puedes quitar tu personalidad esquizofrénicamente y ahora ser concejal y ahora no. Que tradicionalmente hayan ido y ahora unos quieran ir y otros no, como de costumbre, ¿qué se pretende con esta moción?, ¿no se pretende borrar una tradición popular sin más?, porque él no ve otro objetivo, ¿o és que lo tiene?, que se lo cuenten los señores Díez Gabilondo y Ferradás.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du lehenengo eta behin irizpide guztiekiko errespetua adierazi nahi duela, horietako asko bertan dagoen jendeak partekatu ditzakeelarik. Gaineratu duenez, Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du laikotasunak erlijio bakar batekin jarrera ofizial bakar bat ere ez errekonozitzea suposatzen duela. Aitzitik, bere Taldeak uste du erakunde honek izan beharko lukeen jarrera zera izan beharko lukeela: erlijio guztiekiko errespetu bera erakustea, denei berdina. Horrela, mintzatu direnak entzun eta gero, lehen pentsatzen zuena pentsatuz jarraitzen du, hots, helburua Udalbatzak prozesioan ez parte-hartzea dela, eta hori berari keinua egin eta ez ematea iruditzen zaio. Ez du ikusten, esaterako, erlijioarekin edo prozesioa berarekin zerikusia duten jarduerei diru-laguntza kentzeko

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que en primer lugar quiere expresar su respeto a todas las opiniones, incluso muchas de ellas compartidas por el público. Ha señalado el Sr. Díez (O.E. BILDU) que la laicidad supone no reconocer ninguna posición oficial con ninguna religión, su Grupo piensa que la postura que debiera tener esta institución es reconocer la misma posición oficial, la del respeto a todas y cada una de las religiones, la misma para todas. Después de oír las intervenciones efectuadas, se mantiene en su creencia original de que el objetivo es la eliminación de la participación de la Corporación en la procesión, porque le parece que es amagar y no dar. No ve por ejemplo que se plantee que se elimine subvencionar ninguna actividad relacionada con alguna religión o con

planteamendurik, hau da, Udal honek diruz lagun dezake baina ezin du parte hartu, edo Udal honek erlijio jakin baten sozial arloan kolaboratu dezake, baina prozesioan ezin du parte hartu. Bere aburuz gaia abordatu nahi izanez gero, zerbait landuagoa eta globalagoa izan beharko zukeen, bestela, hasierako jarrerara eramaten duelako. Lehen ez du esan, baina puntuz puntu bozkatzen bada, esandakoaren arabera jardungo luke, eta dena batera bozkatuz gero, berriz, mozioaren aurka bozkatuko duela, gaineratu du.

* Palencia jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) esan du bere Taldea ez datorrela bat BILDUko bozeramaileak adierazitakoaren zati batekin. Uste dute pertsona ororen berdintasuna eta sinesmenak gorde eta errespetatzearren, Udalbatzak ekitaldi guztietan egon beharko zukeela, hori ekitaldia izaera erlijiosoa edo hasiera batean jatorri erlijiosoa izan edo ez izan, une hauetan mendeetako izaera hartu duelako. Izan ere, Errenteriako ekitaldi zenbaitek, esaterako, prozesioak edo San Markoko erromeriak, hasiera batean izaera erlijiosoa zuten, baina orain herriko honetako antzinako tradizio bihurtu dira. Eta bai, bera bat dator EAJko bozeramailearekin, gai honekin herrian ez dagoela inolako gatazkarik esaten duenean.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du, bere iritziz, Josiren mintzaldia nahiko adierazgarria izan dela. Kristau ikuspegi batetik hitz egin die. Planteatu die beraiek ikusten dutela prozesioan joatea zerbait borondatezkoa dela, hau da, ez dela folklorea... Bere iritziz argi dago, hor askok planteatzen duen modura, prozesio horretan pribilegio mantendu nahi dutela. Bere aburuz,

los mismos actos de la procesión, es decir, este Ayuntamiento puede subvencionar pero no puede participar, o, este Ayuntamiento puede colaborar en el ámbito social con una determinada religión pero no puede participar en la procesión. Si se quiere abordar el tema, piensa que debiera ser algo más elaborado y más global, lo contrario le lleva a concluir su posición inicial. Antes no lo ha manifestado, pero si se vota punto por punto la votación sería la que había manifestado y si se vota en conjunto, su voto sería contrario a la moción.

* El Sr. Palencia (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) señala que su Grupo no está de acuerdo con parte de lo manifestado por el portavoz de BILDU. Piensan que en aras de preservar la igualdad y respeto a las creencias de todas las personas, la Corporación debería estar presente en todos los actos que independientemente de tener un carácter religioso o tener en primera instancia un origen religioso, han adquirido un carácter secular en estos momentos. Hay actos en Errenteria, como podrían ser la procesión o la romería de San Marcos, que en un primer momento tenían un carácter religioso, pero que ahora se han convertido en una tradición secularizada de este pueblo. Está de acuerdo con la portavoz del PNV, cree que no hay ningún conflicto en la villa con este tema.

* Interviene en euskera el Sr. Díez (O.E. BILDU) señalando que la intervención del parroco Josi ha sido bastante clarificadora. Les ha hablado desde un punto de vista cristiano. Les ha planteado que el ir en la procesión es algo voluntario, esto es, que no es folclore... A su juicio está claro que, tal y como lo plantean muchos, desean mantener los privilegios en

prozesiora beste umiltasun batekin joan liteke, eta beste edozein kristau batekin batera, eta izkin batean. Bere ustez ez da planteatu behar prozesiora joatea zerbait pribilegiatua izanik, lehenengo lerroan egoteko, zerbait berezia alkatea edo zinegotzia izateagatik. Bere aburuz, alde hori oso ondo adierazita dago, izan ere, han ez baita inor ari planteatzen tradizio baten kontrakorik. Eurek planteatzen dute Udala bezala ez joatea, alegia, beste manifestazio batzuetan joaten diren moduan. Izan ere, uste du tradizio batzuk hasiera eta bukaera dutela, eta horietako zenbait gizarteak onartzen dituenean bukatu behar direla. Eta eurek uste dute une hauetan ez dela sekularizatu prozesiora joatea, aitzitik besteek kutsu hori kendu nahi dute joaten denean lasai sentitzeko eta protagonistak izateko. Bere iritziz, protagonistak ez du izan behar alkatea edo zinegotziak, bere amabirjinan, bere errezoetan sinesten duena baizik. Ez Udala eta ezta bere partaideak, gaineratu du.

dicha procesión. Considera que a la procesión se puede acudir con otro tipo de humildad, y juntamente con cualquier otro cristiano y en una esquina. Piensa que no se debe plantear el ir a la procesión como alguien privilegiado, para que se esté en primera línea por el mero hecho de ser alcalde o concejal. A su juicio dicho aspecto está perfectamente expresado en la moción, puesto que allí nadie está planteando algo en contra de una tradición. Lo que están planteando es que como Ayuntamiento no se acuda tal y como se asiste a otras manifestaciones. Consideran que algunas tradiciones tienen un inicio y una final, y que algunas de ellas deben terminar cuando la sociedad así lo considere. Creen que en estos momentos no se debe secularizar el ir en la procesion, al contrario, desean quitarle ese matiz para que el que vaya se sienta tranquilo y no se sienta protagonista. A su juicio los protagonistas no tienen que ser ni el alcalde ni los concejales, sino aquel que cree en su virgen, en sus rezos, etc., esto es, ni el Ayuntamiento, ni sus miembros, añade.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du eztabaidaren ostean, gaiari buruzko aipamen bat egin nahi zuela, izan ere, egia esanda, uste du ez dela ulertzen edo ez da ulertu nahi. Mozio bat aurkeztu dute oso printzipio argiarekin, eta ez daitezela terminoak nahasi, oso argi dagoelako. Ez dute ezer boikotatzeko asmorik, ezta tradizio bakar baten aurka jotzeko ere, testua alderdi horretatik oso garbi dagoelako. Bere ustez, beste bidetik jo nahi duenak eztabaida asmo osoarekin nahasteko desioa du. Bada edo ez da, bere lagunak esan duen moduan, ezinezkoa delako erdi-haurdun egotea. Bada edo ez da, defendatzen da edo ez da defendatzen, askatasuna eta eskubideak osotasunean defendatzen dira edo ez dira

* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) señala que después del debate quería hacer una mención al tema, ya que sinceramente cree que no se entiende o no se quiere entender. Se ha presentado una moción con un principio muy claro, y no se confundan los términos porque es clarísimo. No se pretende boicotear nada, ni ir en contra de ninguna tradición y cree que el texto es clarísimo al respecto. El que quiere ir por otra vía es que quiere confundir el debate de manera intencionada. Se és o no se és, como ha dicho su compañero, no se puede estar medio embarazado, se está o no se está, se defiende o no se defiende, se defienden las libertades y los derechos o no se defienden, en su conjunto. No se puede plantear como, "yo llego hasta aquí, y

defendatzen, nabarmendu du. Ezin da planteatu “ni honaino iristen naiz, eta gatazka batzuk planteatzen dituenez, eta ez daki zeren aldeko iritzi publiko badagoenez, hau ez zait interesatzen eta hemen geratuko naiz, eta laikotasun-printzipioa ez dut amaiera arte errespetatuko”. Bere iritziz, laikotasunaren alde badaude, amaiera arte defendatu behar dute, eta hori barneratu behar dute. Berari zuzenbide-fakultatean erakutsi eta buruan sartu zizkioten holako egoera batean funtzionatu behar duten oinarrizko printzipioak eta oinarrizko ardatzak, behar bada, gehiegi barneratuak eta guzti ditu, baina oinarrizkoak direla uste du, eta gizarte demokratiko baten

como esto ya no me interesa porque plantea unos conflictos y hay cierta opinión pública a favor de no se qué, me paro ahi y no respeto el principio de laicidad hasta el final". Si están a favor de la laicidad la tienen que defender hasta el final y cree que eso lo tienen que interiorizar. A él, en la facultad de derecho le enseñaron e inculcaron los principios elementales y la piezas angulares que deben funcionar en un estado, quizás tenga esto demasiado interiorizado, pero cree que son básicos y piensa que la pieza angular de una sociedad democrática se basa justamente en el respeto de

oinarrizko eskubide guztiak errespetatzean datza. Eta eskubide guztiak errespetatzez hitz egiten dutenean, ez du uste Udalbatza prozesiora ez joatea planteatzen dutenik; ez du uste Udalbatza honetako edozein zinegotzi prozesiora joateko aukera murrizten ari direnik, ezta gutxiago ere. Bakoitza, pertsonal mailan, nahi duen lekura joan dadila, batek bere biziarekin nahi duena egiten duelako, planteatzen dutena da Udalbatza gisa ezin dutela joan. Oso gauza xumea da, hots, Udalbatza ezinda nahasi erlijio bakar batekin ere, eta kontua ez da erlijioak juzgatzea. Eurek ez dira erlijio bakar bat ere juzgatzen ari, gutxienez ez ekimena sustatzen ari direnak, gaineratu du. Eliza Katolikoak historian zehar ondo jardun duen edo ez, hori eman litekeen beste eztabaida bat da. Une honetan printzipio demokratiko bat baino ez dute planteatzen, eta horretara mugatu behar dira. Hortaz, uste du kontu handiarekin ibili behar dutela tradizioa aitatzen dutenean, hain zuzen tradizioaren izenean, astakeri izugarriak egin izan direlako, eta tradizioa ez daitekeelako oinarrizko

todos los derechos y de los derechos fundamentales. Y cuando hablan de respeto de todos los derechos, no cree que cuando plantean que la Corporación no va a ir a una procesión, estén mermando la posibilidad de que cualquier concejal de esta Corporación pueda ir a la procesión, ni mucho menos. Cada cual, a título personal, que vaya a donde quiera, con su vida hace lo que quiera, lo que están planteando es que como Corporación no pueden ir. Es una cosa tan sencilla como que la Corporación no se puede mezclar con ninguna religión, con ninguna, y no se trata de juzgar las religiones, no están juzgando ninguna religión en este caso, no al menos quienes están promoviendo la iniciativa. Ese es otro debate que podría darse, si la Iglesia Católica ha actuado bien o no a lo largo de toda su historia, pero en este momento lo que plantean es un principio democrático y a eso se tienen que ceñir. Por tanto, cree que en ese sentido hay que andar con mucho cuidado cuando se menciona la tradición, porque en nombre de la tradición se han hecho muchas barbaridades y

eskubideen aurka jarri. Uste du afera hori barneratu behar dutela, tradizioa gauza bat delako, eta oinarrizko eskubidea, berriz, beste bat. Eta han herritar guztientzako berdintasun-eskubidea, adierazpen-askatasuna, etab. defendatzen ari badira, sinestun eta ez sinestunen artean, edo erlijio ezberdinen arteko sinestunen artean inolako diferentziarik egin gabe, amaiera

arte eraman behar dute eta puntaraino defendatu. Berak uler dezake orain artean prozesioetara joateko ohitura mantendu dela, baina beste urrats bat emateko ordua dela uste du, izan ere, gizarteek aurrera egiten dute eta eurek zentzu horretan aportatu edo atzean geratuko dira. Berak uste du gizartea norabide horretan eboluzionatzen ari dela, zentzu positiboan, eta beraz, uste du Udalbatzak gaizki jardungo lukeela jada gizartean abian dagoen bide horri atxikiko ez balio. Erlijio izaerari dagokionez, esan nahi du joan den urtean prozesiora joan zirela, eta arduraz jarduten zutela uste zutelako egin zuten. Zenbaitek ez genukeela joan behar pentsatuko du. Iritzi ezberdinak daude, baina berak argi eta garbi dauka prozesiora joan aurretik zeukan printzipioa, irmotasun handiagoarekin eusten ziola gero. Hau da, agintari gisa gurutze baten atzean joatea, Alkatearen makila eta Udalbatza osoa, txistulariek Udaletxean jaso, mezara eraman eta gero jasota eta berriro hona ekartzea, zalantzarik gabe, Udalbatza parte hartzen ari dela esan nahi du. Eta eurek esaten ari direna da zinegotzi modura nahi duten moduan joatea daukatela, baina ez dadila txistularirik izan eurek jasotzeko. Horixe da eurek planteatzen ari direna, eta horixe da benetako eztabaida, eta uste du bide horren aldeko apustua egingo balute ondo egingo

la tradición no se puede enfrentar a los derechos fundamentales. Cree que esto lo tienen que interiorizar, la tradición es una cosa y los derechos fundamentales otra, y si aquí están defendiendo el derecho a la igualdad, la libertad de expresión, etc., para todos los ciudadanos y ciudadanas, sin ninguna diferencia entre creyentes y no creyentes, o entre creyentes de diferentes órdenes religiosas, hay que llevarlo

hasta el final y hay que defenderlo hasta el extremo. Puede entender que hasta ahora se haya mantenido la costumbre de acudir a las procesiones, pero cree que es hora de dar un paso más, las sociedades evolucionan y ellos aportan en esa dirección o se quedan atrás. Piensa que la sociedad está evolucionando en esa dirección y además en positivo y por tanto piensa que la Corporación haría mal si no se adheriera a ese camino que está emprendiendo ya la sociedad. En cuanto al carácter religioso o no, decir que el año pasado fueron a la procesión y lo hicieron entendiendo que por responsabilidad debían hacerlo, algunos pensarán que no debían haber ido, son opiniones diferentes, pero si algo le quedó claro es que el principio que tenía antes de la procesión, lo mantenía después con mucha más firmeza. Es decir, el ir detrás de una cruz como autoridad, con la makila de Alcalde y toda la Corporación, que los txistularis les recojan en el Ayuntamiento, les lleven a la misa, les vuelvan a recoger y les traigan de nuevo aquí, es sin duda que la Corporación está participando como tal. Y lo que ellos están diciendo es que cada concejal vaya como le dé la gana a título personal, pero que no haya txistularis recogiendo a nadie, eso es lo único que están planteando aquí y ese es el verdadero debate y cree que harían bien si apostaran por ese camino. En cuanto a la

zuketela. EAJko bozeramaileak egiten zion interpelazioari dagokionez, alegia,

gero eta argiago zeukala kontu hau prozesiora bakarrik mugatzen zela etab. esaten zuenean, berak esan behar du prozesioaren afera ez dela Udalbatzaren eskumena. Alkate honek kontu hau osoko bilkurara ekarri badu, gaiak nahiko garrantzia duela uste duelako da, izan ere, bai baitakite gai horren inguruko iritzi publikoa dagoela, eta dekretu bidez ateratzea egokia iruditzen ez zitzaielako ekarri dute. Eztabaidatzeko ekarri dute, ez gauza isolatu bat bailitzan, printzipio orokor bat gisa baizik, besteak beste, Gobernu Talde honek ongietorri eta despedida zibil asko egiteko aukera abian jartzeko asmoa duelako. Beraz, planteatzen duena ekimen integrala da, laikotasunaren aldeko orokorra. Egia da -dio- ongietorri eta despedida zibilak, kasu batzuetan, nola egiten direnaren arabera, Udalbatzaren eskumena dela, eta kontua prozesioa bakarrik izan balitz, ez zuketen bide hau segituko, beste hartuko zuketen. Bere aburuz denek pixka bat arriskatuko balute, ondo egingo zuketen. Berak ulertzen du iritzi publikoak eragina duela eta denek dutela halako “lasta” bat gainean, baina zentzu onean dio, gizarteak modu batera edo bestera presionatzen dituelako. Hala ere, ausartak izan behar dutela uste du, eta laikotasun-printzipioaren aldeko apustua egitea oso ondo egongo litzakeela, urte gutxiren buruan osotasunean aplikatuko dena, eta Udalbatzak urte batzuen barruan laikotasunaren alde egingo duela. Bereiziko dituela prozesioa bezala egintza erlijiosoa egintza zibil batetik. Horrela, berak pena hartzen du urrats hau emateko bezain ausartak ez direlako. Horrez gain, oso interesgarria iruditu zaio Kaputxinoetako apezak eginiko mintzaldia, argi

interpelación de la portavoz del PNV, cuando decía que cada vez tenía más claro que esto se

reducía al tema de la procesión, etc., decir que el asunto de la procesión no es una competencia del Pleno, si este Alcalde ha traído este tema a este Pleno es porque considera que es lo suficientemente importante, porque saben que hay una opinión pública sobre el mismo y sacarlo por decreto no les parecía adecuado, por eso lo han traído a debate. Pero lo traen a debate, no como algo aislado, sino como un principio general, porque entre otras cosas, este Equipo de Gobierno tambien tiene intención de poner en marcha bienvenidas y despedidas civiles. Por tanto, lo que plantea es una inciciativa de orden integral, general a favor de la laicidad, y es verdad que las bienvenidas y despedidas civiles, en algunos casos, depende como se hagan, son competencia del Pleno. Si hubiese sido solo la procesión, no hubiesen seguido este camino, hubiesen seguido otro. Cree que harían bien si todos se arriesgaran un poco, entiende que las opiniones públicas afectan y que todos tienen un "lastre", lo dice en sentido positivo, de una sociedad que les presiona en un sentido o en otro. Pero cree que tienen que ser valientes, que el apostar por el principio de laicidad estaría muy bien y además está seguro de que en pocos años será aplicable en su integridad, y que este Pleno en unos años apostará por la laicidad y diferenciará un acto religioso, como es la procesión, de un acto civil. A él personalmente, le da pena que no tengan la valenía suficiente para poder dar ese paso. Le ha parecido especialmente interesante la intervención que ha hecho el párroco de Kaputxinos, cree que es bastante clarificadora en el sentido de que cualquier apuesta por la laicidad no significa ir en contra de ninguna

utzi duelako laikotasunaren aldeko edozein apustuk ez duela esan nahi erlijio bakar baten aurka dagoenik. Ondoren, Errenteriako Ezkerra eta BILDUko proposatzaileei galdetu die ea mozioa puntuz puntu bozkatzearekin ados dauden, edo osorik bozkatzea nahi duten.

religión. Pregunta a los proponentes, Errenteriako Ezkerra y BILDU, si están de acuerdo en votar la moción punto por punto, o si se vota en su conjunto.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du puntuak ezin direla zatitu. Izan ere, Alkateak duela gutxi esan duen moduan, laikotasuna jarduteko modu bat da, eta horregatik, Ferradas jaunaren (Errenteriako Ezkerra) adostasunarekin, mozioa oso-osorik mantenduko dute.

* El Sr. Díez (O.E. BILDU) responde que no se pueden segregar los puntos. El Alcalde ha dicho hace un momento que la laicidad es un todo y por ello, con la conformidad del Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra), seguirán manteniendo el voto de la moción en su integridad.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

PSE-REN ZUZENKETA, BILDUK ETA EZKER ANITZAK LAIKOTASUANRI BURUZ AURKEZTURIKO MOZIOARI EGINA, bozkatzeko jarritakoan.

Sometida a votación la “ENMIENDA DEL PSE A LA MOCION SOBRE LA LAICIDAD PRESENTADA POR BILDU Y EZKER ANITZA”

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (EAJ/PNV, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, PP) eta aurkako 9 botoz (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 10 votos a favor (EAJ/PNV, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, PP) y 9 votos en contra (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

Onartzea PSE-REN ZUZENKETA, BILDUK ETA EZKER ANITZAK LAIKOTASUANRI BURUZ AURKEZTURIKO MOZIOARI EGINA eta akordioaren azalpen-zatian jasota geratu dena.

**Aprobar la** “ENMIENDA DEL PSE A LA MOCION SOBRE LA LAICIDAD PRESENTADA POR BILDU Y EZKER ANITZA” que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Jarraian.

Seguidamente.

BILDUk eta EZKER ANITZAk, Laikotasunari buruz urrats bat gehiago gizarte demokratikoranz izenpeturiko adierazpen instituzionala bozkatu dute.

Sometida a votación la Declaración institucional suscrita por BILDU y EZKER ANITZA relativa a “Laicidad: otro paso más hacia una sociedad democrática”

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 9 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra)

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 9 votos a favor (O.E. BILDU, Errenteriako

eta aurkako 10 botorekin (EAJ/PNV, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, PP),

**E R A B A K I D U**

**Atzera botatzea "**laikotasunari buruzko adierazpen instituzionala: beste urrats bat gizarte demokratiko baterantz", akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

**9. EGUZKIk aurkeztu eta BILDU eta Errenteriako Ezkerrak sinatutako mozioa, Garoñaren itxiera eskatzeko.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du:

"Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak, Madrilgo gobernuak eskatuta, Garoñako zentral nuklearraren jarduera luzatzeari buruzko txostena egin du. Jakina, txosten horren ondorioak plantaren jarduerari eustearen aldekoak dira. Hortaz, era horretako energiaren atzean dauden lobbyen interes ekonomikoak interes orokorren gainetik jarri ditu.

Baina, hara non, kasualitatez, txosten horrek Japoniako Fukushimako zentral nuklearrean izandako istripuaren lehen urteurrenarekin bat egin du. Agian, batek baino gehiagok Txernobileko istripuaren ondorio lazgarriak, 26 urte geroago ere nabariak direnak, ahaztea nahi zuen, baina Fukushimak errealitate gordinera ekarri gaitu berriz, energia nuklearraren benetako arriskuak agerian utzita. Istripu horren ondorio izugarrien balantze xehea egiteko oraindik ere goiz den arren, istripua 7. mailakoa izan zela kontuan izanik (INES eskalako handiena), istripuaren ondorioak Txernobileko istripu larriak eragindakoen parekoak dira, hura ere maila horretakoa izan baitzen.

Ezkerra) y 10 votos en contra (EAJ/PNV, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, PP),

**A C U E R D A**

**Desestimar** la Declaración institucional suscrita por BILDU y EZKER ANITZA relativa a "Laicidad: otro paso más hacia una sociedad democrática", que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

**9.- Moción presentada por EGUZKI, suscrita por BILDU y Errenteriako Ezkerra, para solicitar el cierre de Garoña**

Leída por el Secretario la siguiente Moción:

"El Consejo de Seguridad Nuclear, a petición del gobierno de Madrid, ha elaborado un informe sobre la prolongación de la actividad de la central nuclear de Garoña. Como es obvio, sus conclusiones son favorables a la continuación de esta planta, anteponiendo de esa manera los intereses económicos de los lobbys que están detrás de este tipo de energía, frente a los intereses generales.

La casualidad ha querido que este informe coincida en el tiempo prácticamente con el primer aniversario del accidente producido en la central japonesa de Fukushima. Por si algunas mentes querrían enterrar en el olvido las trágicas consecuencias del accidente de Chernobil, activas 26 años más tarde, Fukushima nos devuelve a la cruda realidad y pone de manifiesto los riesgos reales de la energía nuclear. Aunque es prematuro un balance exhaustivo de las terribles consecuencias, el nivel 7 alcanzado por el accidente (el más alto en la escala INES), hace que sus consecuencias se equiparen a las ocasionadas por el grave accidente de Chernobil, ya que éste también

alcanzó el mismo nivel.

Gatozen, baina, berriz gure ingurura. Berretsi nahi dugu Garoñako zentral nuklearrak aspaldi egon behar zuela itxita, zaharra delako, arriskutsua delako, beharrezkoa ez delako, amortizatuta dagoelako, eta euskal gizartearen gehiengoak ixteko eskatzen duelako.

Euskal gizarteak eta bertako erakunde publikoek argi eta garbi eskatu diote Espainiako gobernuari Garoña berehala ixteko. Alabaina, herritar horiekiko sekulako mespretxua erakutsiz, SNK-k, Nuclenorrek eta PPko gobernuak zentral horren jarduera zentralaren balio-bizitzatik harago luzatzeko asmoa adierazi dute. Eta gu ezin gara erantzun gabe geratu. Bidegabekeria hori geldiarazteko ahal diren mekanismo guztiak abiarazi behar ditugu, eta Garoñako zentrala berehala ixteko eskatu, irmo eskatu ere.

Horren ondorioz, eskatzen diogu Udalaren osoko bilkurari ondoko erabakiak hartzeko:

1. Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berehala ixteko eskaera egitea Madrilgo gobernuari.

2. Kutxako udal-ordezkariari erabaki hori adierazitako erakundearen Batzar Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari jakinaraztea exijitzea, eta bi organo horiei adierazitako erabakia berresteko eskatzea. Erabakia Kutxabankeko Administrazio Kontseiluari eta Batzorde Betearazleari helarazi zaiela agerraraziko da erabakian. Bertan, erabakia berresteko ere eskatuko zaio erakunde horri.

3. Kutxabankek Iberdrolan duen ordezkariari eskatzea Udalak eta hemen aipatutako gainerako erakundeek onartutako erabakia

Volviendo a nuestro entorno más próximo, nos reafirmamos en que Garoña es una planta nuclear que debería haber estado cerrada hace mucho tiempo por vieja, por peligrosa, por innecesaria, por estar amortizada, y porque mayoritariamente lo demanda la sociedad vasca.

La sociedad vasca y sus Instituciones Públicas ya se han manifestado de manera explícita exigiendo al Gobierno Español el cierre de Garoña de forma inmediata. Sin embargo, el absoluto desprecio a esa ciudadanía que representa la intención del CSN, Nuclenor y el Gobierno del PP para que la actividad de esta central se prolongue más allá de la vida útil no puede dejarnos indiferentes. Debemos activar todos los mecanismos posibles para detener este atropello y exigir de manera contundente el cierre inmediato de la central de Garoña.

En consecuencia, solicitamos al pleno de este Ayuntamiento que adopte el siguiente acuerdo:

1- Exigir al gobierno de Madrid el cierre inmediato de la central nuclear de Sta. María de Garoña.

2. Exigir al representante municipal en Kutxa que notifique el expresado acuerdo tanto a la Junta General como al Consejo de Administración de la citada entidad, solicitando que ratifiquen ambos órganos el mencionado acuerdo. El acuerdo recogerá la remisión del mismo al Consejo de Administración y a la Comisión Ejecutiva de Kutxabank, solicitando a esta entidad la ratificación del acuerdo.

3. Solicitar al representante de Kutxabank en Iberdrola que dé traslado al Consejo de Administración de esa empresa, del acuerdo

enpresa horretako Administrazio Kontseiluari helarazteko.

4. Erabakiari ahalik eta publizitaterik handiena ematea hedabideetan".

Ondoren, mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du lehen ere hitz egin izan dutela gai honetaz. Udalbatzaren gehiengoak uste du Garoñako zentral nuklearra arriskutsua dela osasunarentzat eta, Kutxabank-en jarrera zentralaren inguruan determinantea den edo ez eztabaidatzen hasi gabe, bidezkoa ikusten du aitatzea Kutxabank Iberdrolako akziodun handia dela, hain zuzen hirugarren gehien duen erakundea delako. Eta, haren esanetan, konpañia hau eta Endesa dira Nuclenorren jabeak, zeinak kudeatu eta ustiatzen baitu Garoñako zentral nuklearra. Horregatik, eta denentzako ondare dela uste duenez, alegia, Garoñak duen arriskuari aurre egitea, bidezkoa ikusten du Kutxabanki eskatzea -ordezkaritza duen heinean- zentral nuklearra ixteko.

* Herzog jaunak (PP) esan du, ezaguna bezain jakina delako, ez duela errepikatuko euren jarrera eta lehengoari eusten diotela.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du lehenengo puntuan aitatzen den Garoña ixtearen alde daudela, areto hartan askotan eztabaidatua. Haatik, ez daki oso ongi zergatik aitatzen diren bigarren eta hirugarren puntuak, izan ere, aurrerantzean eskatuko al zaie partaidetza duten guztiei gauza bera, galdetu du. Beraz, mozioa osotasunean bozkatzen bada, abstenituko lirateke, eta proposatzaileek puntuz puntu bozkatuko nahiko balute, lehenengo

adoptado por el Ayuntamiento y los demás organismos aquí citados.

4. Dar al acuerdo la mayor publicidad en los medios de difusión."

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que ya se ha hablado antes de este tema. La mayor parte de la Corporación piensa que la central nuclear de Garoña es un peligro para la salud pública y sin entrar a debatir si la posición de Kutxabank es determinante en relación a la central, sí que considera oportuno señalar que Kutxabank es accionista de referencia en Iberdrola, concretamente la tercera entidad accionista. Esta compañía junto con Endesa es propietaria de Nuclenor, que es la empresa que gestiona y explota la central nuclear de Garoña. Por eso, y en función de lo que considera que es un bien común, que es hacer frente al riesgo que supone Garoña, considera oportuno instar a Kutxabank a que pida en la medida de lo que representa, el cierre de la central nuclear.

* El Sr. Herzog (PP) señala que no se van a repetir en su postura que es harto conocida y se mantienen en la misma.

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que están a favor del primer punto que es el cierre de Garoña, que en esta sala ya se ha debatido en varias ocasiones. Sin embargo, el segundo y tercer punto no saben muy bien a qué vienen, ¿se va a solicitar en lo sucesivo lo mismo a todos los participados?. Por tanto, si se vota la moción en conjunto se abstendrían y si tienen a bien los proponentes solicitar la votación punto por punto, votarían a

puntuaren alde bozkatuko lukete.

* Echarte jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du eurek ere lehenengo puntuaren alde daudela. Aldiz, bigarrenak eta hirugarrenak gogoratu nahi ez dituzten iraganeko oroitzapenak dakarkie, eta laugarrenaren alde egongo lirateke. Hortaz, adostasun handiagoa ematearren, puntuz puntu bozkatzea eskatzen dute, eta osorik bozkatzen bada, aldeko bozka emango lukete, nahiz eta oso argi utziko luketen ez datozela bat bigarren eta hirugarren puntuekin.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du gai horretaz hitz egin zutela urtarrilaren 31ko osoko bilkuran. Hala, Garoña itxiera luzatzeak zeuzkan arriskuak planteatu zituzten eta luzamenduak nor onuratzen zuen. Orain soilik adierazi nahi du Europan dagoen erreaktorerik zaharrenak 43 urte dituela, eta une hauetan itzalia dagoela. Garoñak 41 urte ditu eta 50 urte arte luzatzea eskatzen da, modu horretan erreaktorerik zaharrenean bihurtuko da eta ez dute irudikatu nahi ere zer izango litzatekeen. Une honetan -dio- munduan bataz beste 26 urte dituzten 437 erreaktore daude, eta bataz beste 22 urteko bizia dutenez, jada 130 itxi dituzte. Aurreko aldian aitatu bazuen ere, orain errepikatuko du Garoña ez dela energia merkearen eredu bat. Horrela, kosta zen lehengo hirurehun eta berrogeita hamar mila milioi pezetetatik, denen artean ordaindu zen argiaren errezibo bidez, eta orain, Garoñan ekoizten den energiak irabazi handiak ematen dizkie enpresa pribatuei. Era berean, esan daiteke zentralaren hoztutze-sistema arazoak sortzen ari dela Ebro ibai-bazterreko ekosisteman. Jakin baitakite, lehorteak direla eta, ibaiko ura jaisten denean erreaktorea hozteko arazoak izango dituztela.

favor del primer punto.

